

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a / 687. zenbakia



“ Sonata

segundu batean eta piku...”




**ETZI, DOMEKA, HASIKO DIRA
ANTZEZLANEN EMANALDIAK**

ORAIN ETA HEMEN: GARIBAIKO APARLEKUAK/8 • KIROLA: 'PITXI'-RI OMENALDIA, ZAPATUAN/14

PROFESIONAL LIBERALEN GIDA/23

Edertasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00



Maatz
ILEAPAINDEGIA

Antso Abarka, 3 bajo · Musakola
ARRASATE · Tf. 943 79 58 78

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILEAPAINDEGIA

virginia.L

MISTOA

Lapurdi 3. Zigarrola.
ARRASATE
Tel.: 943 79 65 65

AUSART

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILEAPAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore


Olarte 10 · ARRASATE · 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT

KALEINKESTA/ Kotxie hartu biher izen dozunien euki dozu kontuen Auto Bariko Astie izen dala?




JABIER MENENDEZ
Langillie



JOSEBA LARRAÑAGA
Erretiraue



PURI GOROSABEL
Erretiraue



JABIER SALABERRI
Erretiraue



IKER ARANBURU
Ikaslie



AINHOA AYANI
Langillie

Neu kanpotarra nazenez ez nekixen holakorik euenik, baiñe idea ona dala pentsetan dot. Egixe da txarto ohittute gauzela danok, eta edozer gauza egitteko kotxie hartzen dogule.

Holako egun berezixetan ahaleginketan naz kotxie ez hartzen, baiñe bihera dauenien ez dau beste bueltarik. Holako ekimenek ez dakit zeozertarako balixoko dauen, baiñe ondo dauz.


Neuk kotxie ahal dan eta gutxien ibiltten dot, baiñe ez Auto Bariko Astie dala. Holako ekimenak ondo dauz kontureketako kotxe artien bizi garelara, ez daukogu-eta besterik.

Ba neuk kotxie hartu biher doten bakotxien bi bider pentsetan dot. Oingo astien, baiñe, kotxerik ez dot hartuko, eta gaur, autobusa debalde danez, autobusen ibilliko naz.

Egixe esatiarren, ez dot kontuen hartu, akordau be ez naz egin. Etxetik kalera bizikletan etorri naz, askoz be komoduau dalako. Jentiek kotxie larregi hartzen dau, eta ez dau nun aparkau.

Alde horretatik ez dot arazo haundirik euki, Mondraguen normalien ez dot eta kotxie hartzen, oiñez ibiltten naz. Holako ekimenak ondo dauz, jentiek larregi hartzen dau-eta kotxie.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK BOULDERRA ITXITA Uarkapeko boulderraren erabil-tzaileek kexa bat eman digute aditzera. Azken bi asteotan zerbitzu hori etenda egon da, eta inork ez die azalpenik eman. Boulderraren atean, zerbitzua etenda zegoela zioen horma-irudia ipini zuten, baina ez da arrazoirik ematen. Hilero kuota ordaintzen dutenez, uste dute gutxien-ehar bat ipintzea ez dagoela soberan.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KIROLA / 15

KULTURA / 16

Mugikortasun plana

Mugikortasun planaren nondik norakoak aurkeztu zituzten astelehenean udaletxean.

IV. xake txapelketa

Gaur hasiko dute IV. Arrasate Hiria Xake Txapelketa. Nazioarteko mailako xakelari-ek jokatu dute.

Udal Artxiboa

Uholdeak kaltetutako artxiboko dokumentu guztiak lehortzea eta berreskuratzea lortu dute.

ASTEKODATUA

330.132

EUROKO SARIA EMAN DU ONCE-K ARRASATEN

Joan den martitzenean, hilaren 21ean, Joxerra Untzuruntzaga oñatiarrak ONCEko 330.132 euro banatu zituen herrian. 30.012 euroko hamaika kupoi saldu zituen.

IRAKURLEAREN TXOKOA

Arrasatear batek esan zigun Arrasateko Auto Bariko Egunarekin ez zegoela ados, eta bere haserrea aditzera eman gura zuen. Hain zuzen ere, here esanetan, "Auto Bariko Egunak ez du ezertarako balio, eta anabasa besterik ez du sortzen". Herritar hori Erdiko kalean bizi da eta dirudienez ia martitzeneko Eroskira joaten da erosketak egitera. Han bizi direnek 18:00etatik 21:00etara bitartean alde zaharrera autoarekin sartzeko aukera daukate, eta hala egiten du. "Kontua da nik ez nekiela Auto Bariko Eguna zenik, eta, erosketekin bueltan autoarekin etxerantz nindoala, udaltzain batek ez zidan alde zaharrera sartzan utzi. Autoa Zerkaostetan uzten saiatu nintzen, handik erosketak eskuz eramateko, baina Grupo San Juanetik Zerkaostetara joateko, ordu erdi behar izan nituen".

HERRITARREN BERBAK/ Asier Zubizarreta



Domus Aurea

Domus aurea. Abian da iraultza domotikoa. Domotika, "Domus" edo etxe eta robotikaren batzetik datorren hitza duzu. Bere burua gobernatzen dakien eraikin adimenduna. *Hi hoi kotxien, biherre-ra, ta trumoi Murun behera. Derrepentien akordeta haz etxeo bentanak zabalik itxi dittuala. Da! Atara mobile poltsikotik, hiru botoi sakatu ta etxeo bentana guztixek itxitte. Badakik zer dan hori!*

Gloria in excelsis. Laster etxe gehiendetan elektrotresna eta aparatu automatiko guztiak era zentralizatu eta koordinatuan gestionatuko dira ordenagailuaren bidez. Injeneruak aspalditik ari dira lanean etorkizuneko etxebizitza erabat eraldatuko duen sistema sortu asmoz. Baita geurean ere, hara Fagor edo Ikerlanen esperientziak. *Ofiziñatik dei bat eitten dok eta etxera orduko oilasko errie*

gertu laban. Hori dok ona! Ero kipulie akabau dala; onions, abixue pantailan; frigorifikuek berak erute jok ta generuen kontrola!

Etxebizitza integratuak argia, gasa edo klimatizazioa ere erregulatuko ditu, momentuko beharren arabera, beti

ere optimizazioaren bidean. Bi hitzetan esanda, bizi kalitate; energi aurrezpena ahaztu gabe, kontsumitzaileon eta baita ingurugiroaren onerako. *Traaankil egoten nok ni etxien, patxaraz. Oin ezetaz preokupau biherrik bez! Konforra, konforra...!*

Miserere nobis. Abian da iraultza domotikoa, ametsezko etxea egi bihurtu da. Hala ere, adituen esanetan, seinaleen interferentziak edo sistemaren akatsak direla eta ezbeharrak ere suerta daitezke etxebizitzotan. *Ordenadorie endredau zuan ta ezin komuneko tapie altzau ezelan be, ha be domotikue dok eta! Ba bidetien ein biher izen naixuan kaka, papel-albala azpixon hartute!*

"Dagoeneko, abian da iraultza domotikoa, ametsezko etxea egi bihurtu da"

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Galzarain
Ane Berebizar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 24**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- ZAPATUA, 25**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- DOMEKA, 26**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- ASTELEHENA, 27**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- MARTITZENA, 28**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 29**
Azkoaga, Iturriotz 17. 943 79 79 99
- EGUENA, 30**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUBAKOITZA, 1**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Igualarioria. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIK**
SOS Delai 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monteiron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|--|---|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
12:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

GARAGARTZAKO JAIK
Gaurtik, egubakoitza, hasita eguaztenera arte San Migel jaiak ospatuko dituzte Garagartzan. Besteak beste, bertsolariak, dantzaldiak, kontzertuak, umeendako jokoak eta beste izango dira.

1952AN JAIOTAKOEN JAIK
Urriaren 16an, 1952an jaiotakoek bazkaria egingo dute. Irailaren 30a aurretik eman beharko da izena Iturriotz kaleko Euskadiko Kutzaren bulegoan.

ESKOLAKO IKASLEAK
Bihar, zapatua, 1970, 1971 eta 1972ko Eskola Politeknikoko ikasle, irakasle eta langile ohiak elkartuko dira. 11:00etan, hamaiketako egingo dute Txixinpe tabernan; 12:00etan, Eskola bisitatuko dute; 13:30ean, txikiteoa; eta 14:30ean, bazkaria Arteaga jatetxean.

PLASTIKO BILKETA
Martitzenean, hilaren 28an, baserri ingurunekeo plastikoen bilketa egingo dute Udalan, Bedoñan eta Garagartzan.

LUDOTEKETARAKO TXARTELA
Datorren egubakoitzetik, urriaren 1a, aurrera, ludotekako zerbitzua erabiltzeko ezinbestekoa izango da txartela izatea.

AEDrenAGENDA

HIRU HAUNDIXEK HIRU EGUNETAN
Urriko azkeneko asteburuan Hiru Haundixek Hiru Egunean mendi ibilaldia egingo dute. Lagundu gura baduzu, jo AEDra.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Presoen aldeko gose greba egin zuten

Preso zeudenei elkartasuna adierazteko eta horien eskubideak bete zitezen, astebeteko gose greba egin zuten sei arrasatearrek. Frantziskotarren lokaletan egin zuten egonaldia eta egunero karteladak egin zituzten. Euskal Herrian guztira 630 lagunek egin zuten baraualdia 105 herritan.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



— Ni zurekin zorretan nago. —

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA
Zapatua, 18 **7°C**

MAXIMOA
Egubakoitza, 17 **29°C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
10 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 15	17 °C	13 °C	8,6 l/m²
Eguena, 16	21 °C	14 °C	— l/m²
Egubakoitza, 17	29 °C	9 °C	— l/m²
Zapatua, 18	28 °C	7 °C	0,2 l/m²
Domeka, 19	19 °C	15 °C	0,3 l/m²
Astelehena, 20	25 °C	15 °C	— l/m²
Martitzena, 21	20 °C	11 °C	0,9 l/m²


San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Laura Irizar 'Basetxea K'-n

Laura Irizar 19 urteko arrasatearra da, eta ETB1eko *Basetxea K* saioan lehiakide izan da. Grabaketak bukatuta, egubakoitzean itzuli zen etxera eta astean, herriko irradian izan da bizitakoak kontatzen. Momentu gogorak pasatu dituela esan digun arren, gosea dela-eta gehienbat, esperientzia ikaragarria izan da arrasatear gaztearentzat. Lehiaketa irabazi ote du? Horren erantzuna asteburuko gainbegiratuan izango dugu.



Pello Zabalarekin udazkenaren gainean

Eguaztenean udazkenean sartu ginela-eta, Pello Zabalarekin egin genuen hitzordua. Urtaro honetarako garta-denborek aurreikusten dutena laburbildu zigun; baita udazkenean gainera hainbat bitxikeri kontatu ere. Asteburuko gainbegiratuan izango dugu berriz ere Zabala-ren esanak entzuteko aukera. Bide batez, aurrerapen moduan esan, bi aste barru hasiko dugun *Igo autobusera!* saioan Pello metereologiaren gaineko geltokian izango dugula.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 **Asteko elkarrizketak:** Maider Morras eta Larraitx Ugarte abokatuak, dibortzioaren lege berriaz; Laura Irizar, *Basetxea K*-ko lehiakidea; Xabier Mendiguren idazlea, Donostiako Zinemaldiaz; Pello Zabala...
- DOMEKA**
10:00 **Asteko elkarrizketak.**
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
- 09:00-11:00 **UDA GIROAN**
Albisteak.
Elkarrizketak.
Estilismoaren tartea.
Hondartzak, igerilekuak eta urtegiak.
Eguraldi iragarpena.
Zozketak, zorion-agurrak...
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:15 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**
- 14:00 **UDA GIROAN errepikapena.**
- 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

ASTEABIHITZETAN

LKS Olandixoko tunelaren proiektuarekin

LKS Ingeniaritza Kooperatibari esleitu dio Gipuzkoako Foru Aldundiak Olandixoko tunela egiteko proiektua. Foru Aldundiaren eta Arrasateko Udalaren asmoen arabera, errepide berria Aretxabaleta eta Arrasate arteko mugan hasiko da, saihebidetaren bidegurutzearen inguruan. Guztira bi kilometroko luzera izango du Arrasate mendebaldeko saihebidetarako. LKSk zortzi hilabete ditu proiektua aurkezteko. Orain, berriz, lurren desjabetze prozesua abiarazi behar dute.

Kartzeletako pastoralaren berbaldia

Gaur, egubakoitza, Mesedeetako Amaren eguna dela aprobetxatuta, Arrasateko kartzeletako pastoralak berbaldia antolatu du presoan egoerari buruz berba egiteko. Eta, berbaldi hori gaur egingo dute San Andresko parrokiako lokalean, 19:00etan. Berbaldiaren izenburua *La atención y servicios religiosos en las prisiones* izango da. Luis Miguel Medina Martuteneko presondegiko kaperauak egingo du berbaldia.

Istripua Kanpanzarren eta Markuleten

Joan den egunean, hilak 16, auto istripua izan zen Kanpanzarren. 07:00ak aldera, Arrasateko noranzkoan zetorren furgoneta bat irauli egin zen, baina ez zen ezer larririk gertatu. Une batez, errepideko karril bat itxita egon zen, baina 08:00etarako bidea irekita zegoen. Hori bai, errepidean olio zegoenez auto gidariak kontuz ibili behar izan ziren. Ez da, baina, egunotan izan den istripu bakarria izan. Martitzenean, Markuleten, auto batek bizikletan zihuan gazte bat harrapatu zuen. Zorionez, lehenengo sorospenak ambulanzian jaso eta gero, txirrindulariak ez zuen arazorik izan bere kabuz etxera itzultzeko.



Autorik Gabeko Astearen balorazioa

Oraingo astea Autorik Gabeko Astea izan da, eta Arrasaten hainbat ekimen egin dituzte gai horri lotuta. Guztiek, baina, ez dute erantzun bera izan. Joan den zapatuko Bir-Zikleta azokak, adibidez, arrakasta handia izan zuen, baina gutxi izan dira automobila alde batera utzi eta hara eta hona joateko beste garraiobide bat aukeratu dutenak.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Badator burrundarie

Dagoeneko, hainbat dirakurlek jakingo duzue Goienak eta Elgetako Espaloiak Danbaka Debagoienako I. Musika Lehiaketa antolatu dutela. Gauza bitxia da Goienak halako ekimena bultzatzea, baina halako zerbait egitea premiazkoa zen, eta merezi du horretan saiatzea. Ezagun da ibarrean musika talde mordoia daudela eta hiribu-

ruetatik urrun gaudenez, askoz zailagoa da horiek ezagutzera ematea. Goienak baditu balibideak halako ekimen bat antolatu eta behar duen oihartzuna emateko. Izan ere, edozein lehiaketak daukan oihartzu eta garrantziaz gain, kasu honetan telebista, irrati eta prentsa bidez lehiaketari jarraipen zabala egingo zaio; eta hori ere taldeen onurara-

ko izango da. Gure artean bada ere, ezagutzera emango dira. Orain musika taldeek esku hartzea besterik ez da falta. Urriaren 7a aurretik, hiru abesti originalen osatutako grabazioak aurkeztu beharko dituzte. Talde horien artean aukeraketa egingo da, eta hogeik Elgetako Espaloian euren onena erakutsi beharko dute zuzenean. Esku hartzera animatzen zarete? Zer daukazue galtzeko?

ASTEKOIRUDIA



UBANE MADERA

ESPAINIAKO ARMADAKO SOLDADUEN AURREAN KALE AGERRALDIA EGIN ZUTEN

Jakin bagenekien Espainiako Armada ibarrean maniobretan zebilela, eta astean helikopteroak eta tropak ikusi genituen. Baina, eguzten arratsaldean, 19:30ean, ehun bat soldadu Eskoriatzatik Arrasatera oinez heldu ziren. Arrasaten, Monterron parean, hainbat herritarrek txistuka hartu

zituzten soldaduak, kale agerraldia eginez. Probokazio keinuak elkartrukatu zituzten. Ehun bat soldadu zeuden, eta gutxika-gutxika berrehun bat herritar batu ziren *Alde hemendik* leloa oihukatuz. Azkenean, soldaduak etorri ziren leku bertik alde egin zuten Aretxabaletarantz. /ARRASATE PRESS.

BITXORI
ile apaindegia

Erdiko kale 52
Tel.: 943 79 88 32

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Maritxu egunean
zoragarri egon zaitezten...

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa
- Solariuma
- Makillaje

Olarte kalea 10 Tel.: 943 79 52 50
ARRASATE

Euriteek sortzen dituzten arazoak konpontzeko azterketa egin dute

UBANE MADERA

Tokiko Gobernu Batzarrak oraingo astean landutako gaien artean, euri handien eraginez herrian sortzen diren ur-pilaketak saihesteko txostena aurkeztu dute. Bestalde, jakinarazi dute astelehenean osoko bilkura egingo dutela.

Irailaren hasieran botatako euriteek herrian zenbait arazo sortu zituzten. Horiek konpondu nahian, egoera aztertzen duen txostena aurkeztu dute Tokiko Gobernu Batzarrean. Horren arabera, bost puntu hartu zituen urak irailaren 9an: Uribarri etorbidean, Trefasa inguruan Gau-Txori ubideak gainezka egin zuen; Iturripeko zubitik gertuko kalea, berriz, urez bete zen. Horren arrazoia jakiteko, Santa Barbarako gainezkabideak duen eragina aztertzea erabaki dute. Era berean, erabaki dute Nafarroa etorbidean sortu ziren ur arazoak konpontzeko lanak egingo dituztela; orain erabaki beharko dute Zerrajerako urbanizazio lanekin batera egingo dituzten edo zati hori aparte berrituko duten.

Bestalde, Gipuzkoa etorbidean bi puntutan izan ziren arazoak urekin: Gelma parean eta San Isidro ermita parean. Gelmakoa konpontzeko lanak hura guztia



ARTXIBOA

Eurite handiekin askotan ura pilatzen da Iturripe zubiaren parean.

urbanizatzearekin batera egingo dituzte. Txostenak, berriz, dio San Isidron arketa bat apurtu zela eta horrek eragin zuela uholdea.

Bukatzeko, txostenak dio Udalaiz Dorrean berrituko sartu dela ura; hala, arrazoia argitzeko azterketa egitea erabaki dute. Era berean, zenbait udal eraikinetan ere sartu zen ura: Monerronen, Amaia antzokian, pilotalekuan, udal garajeetan eta Kontzezino garajeetan. Azken hiru horien kasuan, ura ateratzeko bonbek ez zuten behar bezala funtzionatu.

OSOKO BILKURA

Horrekin batera, jakinarazi zuten astelehenean, hilak 27, osoko bilkura egingo duela udalbatzarrean. Besteak beste, Ezker Batuak aurkeztutako mozioa aztertuko dute. Oro har, laizismoaren aldeko mozioa da. Zera eskatzen du, besteak beste: "Konpromisoa hartzea Udal moduan inongo ekitaldi erlijiosotan parte ez hartzeko; horrenbestez, udal ordezkariak, alkatea buru, ezingo dute, erakunde gisa, inongo liturgia erlijiosotan parte hartu".

Bizikletak zela zaindu erakusteko ikastaroa Emakume Txokoan

U.M.

Emakume Txokoak antolatu dituen ikastaroen artean, bada bat berezi samarra: bizikletak zaintzeko eta konpontzeko ikastaroa emango du Mikel Lizarralde bizikleta saltzaileak. Urriko aurreneko hiru eguaztenetan izango dira eskolak.

Emakume Txokoko arduradun Esther Lizarralde jakinarazi digunez, urriaren 6an hasiko da bizikletak zaintzen eta konpontzen

ikasteko ikastaroa. Hain zuzen ere, zulaketak konpontzen, balaztak aldatzen, gurpilak zentratzen, kanbioak erregulatzen eta orokorrean ohikoak diren arazoak konpontzen erakutsiko du Mikel Lizarralde ikastaroan. Horrekin batera, bizikleten neurrien gainean ere berba egingo du, norberarendako neurri egokiak zeintzuk diren ikusteko eta bizikleten funtzionamendua aztertzeko.

EMAKUMEENDAKO BAKARRIK

Lantegia emakumeendako bakarririk da; eskola horien bitartez,

bizikletaren erabilera bultzatu gura du Emakume Txokoak eta baita emakumeei segurtasuna eman bizikleta erabiltzeko eta konpontzeko orduan.

Lehen esandako moduan, eskolak urriko aurreneko hiru eguaztenetan izango dira, 18:00etatik 20:00etara. Interesa duenak urriaren 4a baino lehen eman beharko du izena. Hiru euro kostatzen da ikastaroa. Argibide gehiagorako eta izena emateko 943 79 41 39 telefonora deitu beharra dago, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.


LABUR

10.000 euro emango ditu Udalak ikastetxeetako ikasleen Guraso Elkarteendako

Arrasateko Udalak hartutako erabakiaren arabera, ia 10.000 euro emango dute herriko ikastetxeetako Ikasleen Guraso Elkartearen artean banatzeko. Hain zuzen ere, honelaxe banatuko dute dirua: Arizmendi Ikastolari, 4.035 euro; Arrasate Herri Eskolari, 2.690 euro; Arrasate-Aretxabaleta institutuari, 1.535 euro eta Mesedee-tako Andra Mari ikastetxeari, 1.360 euro. Edozelan ere, dirulaguntzak bi txandatan emango dituzte. Hain zuzen ere, orain kopuru osoaren %60 emango diete aipatutako guraso elkartei.

Giza eskubideen gaineko ikastaroa antolatu du Diputazioak Donostian eta Arrasaten

Giza eskubideen kultura lantzeko ikastaroa antolatu du Diputazioak. Gipuzkoako bi lekutan izango da: Donostian eta Arrasaten. Arrasatekoaren kasuan, urriko eta azaroko zapatuetan izango dira eskolak. Guztira, 36 ordu. Hizlarien artean, berriz, zenbait unibertsitateko katedradunak eta irakasleak etorriko dira: Deustua, Zaragoza, Sevilla eta Madril, esaterako. Giza eskubideen bilakaera historikoa, etorkinak eta giza eskubideak, generoa eta giza eskubideak, eskubide zibilak... landuko dituzte, besteak beste. Asko jota 30 lagunekoa taldea lortu nahi dute eskolatan. Interesa duenak udaletxean ditu izena emateko orriak. 75 euro kostako da ikastaroa, 55 ikasle edo langabetua izanez gero.



Erdu-AEK-k itxura berritu du

Erdu-AEK euskaltegiak berritze lanak egin ditu Arrasateko egoitzan. Egoitza goitik behera margotu dute eta 3.000 euro inbertitu dituzte, altzariak berritzeko. AEK-ko arduradun Oskar Elizburuk jakinarazi digunez, ikasleen iritziak kontuan hartu eta AEKren egoitza modernizatzea eta alaitzea izan da lanon helburua. Lanak amaitu dituzte eta datorren martitzenean, hilak 28, inaugurazio ekitaldia egingo dute, luntx eta guzti. Hain zuzen ere, AEK-ko ikasleak eta euskalgintzaren inguruan lanean dabiltzan elkarteak gonbidatu gura dituzte ekitaldira, 18:00etan.

ILEAPAINDEGIA

virginia.L

MISTOA

Maritxu kajoi egunerako hartu txanda!
Orraztu eta makilatu 21 €

Lapurdi 3. Zigarrola. ARRASATE
Tel.: 943 79 65 65

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKA


MEHER

Bañez doktorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

Maritxutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.

Herriko mugikortasuna hobetzeko plana lantzen dabil Arrasateko Udala

GOTB/ U.M.
Arrasaterako Mugikortasun Planaren nondik norakoak aurkeztu dituzte. Hau da, herrian dabilzan oinezkoen eta ibilgailuen artean elkarbizitza lortzeko plana. Autorik Gabeko Astearen barruan egin dute aurkezpena. Oinezkoei eman gura zaie lehentasuna.



Zortzi hilabeteko epea du Intra enpresak Mugikortasun Plana egiteko.

Udalak hala eskatuta, Bartzelonako Intra enpresa Arrasaterako Mugikortasun Plana egiten dabil. Hain zuzen ere, eta Autorik Gabeko Astearen barruan, astelehenean eman zuten plan horren berri, herritarrei informazioa emateko eta Udalean egin gura dutena zuzenean esplikatzeke.

Hala, Intrako zuzendari Ole Thompsonen esanetan, hiriko mugikortasuna egokia izateko, herritarren arteko elkarbizitza lortzea beharrezkoa da. Arrasateren kasuan, herriaren erdigunean badira zenbait kale elkarbizitza hori posible egiten dutenak; halakoetan oinezkoak, automobilak eta bestelako ibilgailuak batera lasai ibil daitezke. Baina arazoa da halako gune gehiago sortzea herrian. Hori egiteko beharrezkoa da semaforoak, zebra bideak edo bizikletendako guneak egokitzea, esaterako.

Hain zuzen ere, Intra enpresako presidentek zera adierazi zuen: "Argi dagoena da bizikleta dela alde batetik bestera ibiltzeko medio jasangarriena; besteak beste, energia gutxi gastatzen delako. Horregatik bizikletan dabilzanen erraztasunak eman

Mugikortasun Planaren helburu nagusia da herriaren lehentasuna ematea oinezkoei

behar zaizkie. Hala ere, hiriaren mugikortasuna moldatzerakoan, lehentasuna ez zaie bizikletei eman behar, oinezkoei baizik".

Intra enpresakoek urte amaieran aurkeztuko dizkiote Udalari planaren emaitzak eta euren proposamenak. Behin informazio guztia esku artean, Udalak era-

Urriaren inkestak egiten hasiko dira, kalean zein partikularrei (garraiolariari...)

bakiko du zein neurri hartu herriko mugikortasuna hobetzeko.

LASTER INKESTAK EGINGO DITUZTE
Plana egiteko lanen barruan, urriaren hasieran inkestak egingo dituzte, bai kalean baita partikularrei ere (garraiolariari, taxilariari, txirrindulari elkartei...).

LABUR

Arrasateko Yoga Elkarteak datorren astean hasiko da yoga eta masaje eskolak ematen

Arrasateko Yoga Elkarteak jakinarazi digunez, datorren astelehenean, hilak 27, hasiko da yogaren ikasturtea. Berriz, eguaztenean, hilak 29 hasiko dira masaje eskolak ematen. Bi hilabeteko ikastaroak izango dira eta eskola bakoitzak ordu eta erdi iraungo du. Eskolak Jose Luis Iñarra pasealekuan izango dira. Ordu-tegia, berriz, honako hau da: goizean, hamarretan; arratsaldean, seiak eta erdietan eta iluntzean, zortziak eta erdietan. Intersa duenak honako telefonoetara dei dezake: eguerdian, 943 79 20 85 eta gauean, 943 79 66 98 (Antoniarengatik galdetu).

Domekan eta astelehenean Gudari Eguna gogora ekarriko dute zenbait ekitaldirekin


Datorren astelehenean, hilak 27, Gudari Eguna da. Hala, hori gogora ekartzeko pare bat ekitaldi antolatu dituzte hemen inguruan. Batetik, etzi, domeka, omenaldia egingo diete gudariei. Besaiden izango da ekitaldia, 12:00etan hasita. Arrasatek Besaidera joan gura duenak, 10:00etan Arbolapetan du hitzordua, Udaltatik igoko dira. Berriz, Gudari Egunean bertan, astelehenean, manifestazioa egingo dute Arrasaten. Seber Altube plazatik aterako da, 19:00etan.

Aprendizen Eskolan ibilitako zenbait lagunek ospakizuna egingo dute domekan

Orain dela 50 urte Zerrajerako Aprendizen Eskolan ibilitako zenbait lagunek ospakizuna egingo dute etzi, domeka. Lehenengo meza izango dute, hildakoen alde, 12:00etan San Juan parrokiari. Eta horren ostean, bazkaltzera joango dira. Hain zuzen ere, 1954an hasi ziren Aprendizen Eskolan, 14 urterekin.

Santiagora joateko erromesaldia antolatu du San Andresko parrokiak

San Andresko parrokiako batzordeak jakinarazi digunez, aurtengo Donejakue urte santua dela-eta, San Andresko parrokiak Santiagora joateko erromesaldia antolatu du. Datorren azaroaren 6tik 9ra egingo dute erromesaldia. Informazio gehiago behar duenak edo erromesaldirako izena eman gura duenak, San Andresko parrokiak duen bulegora joan beharra du, Dr. Bañez kalera. Edo bestela, meza orduetan San Andresko parrokiako sakristiara joan daiteke.



Juan Carlos Gerra 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 98 06



Bi urteko epea dute Garibaiko lanek; horren arabera, 2006ko ekainean emango dizkiete erosleei aparkalekuetako giltzak. U.M.

HIRIGINTZA/ Laubide-Garibai aparkalekuak

Hirurehun garajetik gora salgai daude 50 urterako

UBANE MADERA

Laubide-Garibai lur azpiko aparkalekuan garajea lortzeko zerrendak herritar guztien dako daude zabalik. Irailaren 30a baino lehen erosten duenak %15eko beherapena izango du. Orain arte, erdiguneko auzotarrek bakarrik eros zezaketen aparkalekuak.

Bi urte barru, Garibaiko aparkalekuko lanak bukatzen dituztenean, lurpeko 595 aparkaleku izango dira Arrasaten, Laubidekoak barne. Horietatik 150 txandaka erabiltzeko izango dira eta gainerako 445ak 50 urterako erosi ahal izango dira. Hala, orain, azken aparkaleku horiek saltzen dabilza Anboto eraikuntza-enpresan. Hain zuzen ere, orain arte erdialdeko bizilagunek zuten halako garaje bat erosteko lehenetsua. Guztira 110 garaje erosi dituzte. Eta behin haien zerrendak osatu ostean, edozeinek eros ditzake libre geratu diren gainerako aparkale-

kuak, Arrasatekoek zein Arrasatekoak ez direnek. Guztira, 335 aparkaleku daude aukeran. Interesa duenak Anboto eraikuntza-enpresara jo beharko du izena ematera. Oraindik ez dago eskara egiteko epe-mugarik ezarrita. Hori bai, garajea irailaren 30a baino lehen erosten duenak %15eko beherapena lortuko du; irailaren

30etik aurrera eginez gero erosketa, berriz, deskontua %10ekoa izango da. Esan beharra dago garaje guztiak irekiak izango direla.

BI URTEKO LANAK

Aurreikuspenen arabera, aparkalekuen giltzak 2006ko ekainaren inguruan emango dituzte. Baina baliteke atzerapenen bat izatea.

Garajeen ezaugarriak

Guztira, 595 garaje izango dira. 150 txandaka erabiltzekoak. Gainerako 445ak 50 urterako salduko dituzte. Orain arte, 110 garaje saldu dituzte. Orain, 335 salduko dituzte. Prezioa 15.000 euro da (BEZa barne). Irailaren 30a baino lehen erositzen gero, %15eko deskontua egingo dute. Behin Garibaiko lanak bukatu eta gero, Laubide itxi egingo dute, han berritze lanak egiteko. Besteak beste, igogailudun beste sarrera bat egingo diote. Hala, Laubideko aparkaleku guztiak (168) 50 urterako saldutakoak izango dira. Garibaiko aparkalekuak, berriz, hiru solairu izango ditu. Gorengoan txandaka erabiltzeko aparkalekuak egongo dira.



Arrasateko
euskalgintza



Euskalgintzako erakundeei babesa emateko taldea

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Euskalgintzaren Plan Estrategikoaren barruan, euskarari eta euskalgintzari egindako erasoen aurrean erantzun bateratua eta babesa emateko taldea sortu zuten. Talde horrek egiten duen lana azaldu digute.

Arrasateko Euskalgintzak premia handi bat ikusi zuen. Euskalgintzako edozein talde edo erakundek erasoaren bat izanez gero, erantzun bateratua egin gura zuten. Horrez gain, herritarrek hizkuntza eskubideen edozein urraketa salatzea bermatu gura zuten.

Horretarako, orain dela bi urte, talde bat sortu zuten. AED, Euskalan, Mesedeetako Ama, EHE eta AEK-ko ordezkariak hasi ziren lan horretan. Gaur egun, berriz, AEDk, EHEk eta Mesedeetako Amak jarraitzen dute. Gainontzeko erakundeak beste lantalde batzuetan lanean dabilza, eta ezin zuten talde horretan jarraitu.

Talde hori hilabete behin elkartzten da. Horren eginkizuna izan da, lehenik eta behin, erasoaren aurrean erantzun bateratuak egiteko protokoloa idaztea. Euskalgintzak onartu egin du protokolo hori.

URRAKETAK BEHATOKIAN SALATU

Bi eraso mota bereiztu dituzte: bata, zerbitzu publikoek eta herrira begira dauden erakundeek hizkuntza eskubideei egiten dizkieten erasoak; eta bestea, euskararen aldeko erakundeen aurkako jazarpenak. Talde horrek eskaera egiten die herritarrei hizkuntza eskubideen urraketak Behatokian salatzen (902 19 43 32).

Euskalgintzako taldeek eraso bat izanez gero, babesa eta erantzun bateratua eman

Hizkuntza eskubideen urraketen aurrean, Behatokian salatzen aukera



Maritxu Kajoi
egunerako makilatu eta orraztu
20 €tik aurrera

ZATOZI!

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILE APAINDEGIA

ESKORIATZA



Tfno 714345

ERRETEGIA

MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astehenetan itxita
ESKORIATZA



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

ARRASATEARRAK ANGLIRUN ETA... OVIEDOKO SAN MATEOTAN!!!

Argazkian azaltzen den koadrila: goian, ezkerretik eskuinera, Angel Segovia eta David Hernanz; eta behean, ezkerretik eskuinera, Jaime Carabias, Sebas Sagasta, Bizkai eta Iñigo Azkarate. Asturias aldean izan ziren joan den aste bukaeran. Zapatua ondo baino hobeto aprobetxatu zuten, Angliru izeneko portu gogorra igo zuten-eta bizikletekin. Hurrengo egunean, domekan, Covadongako Lakuetara joan gura zuten bizikletan, baina Oviedon San Mateoak ospatzen zituztela-eta, arrasatearrek Angliruko igoera ospatzea erabaki zuten zapatu gauean. Bazegoen, beraz, zer ospatu, eta gainera, bizikletan horrenbeste ibili eta gero, ondo errekuaratzeko beharrezkoa da ondo jatea eta ondo edatea. Ondo jatearena ez dakigu bete zuten, baina edatearen kontuan ez ziren motz geratu. Hortaz, pentsa dezakezue nor joan zen domekan Covadongara, ezta?



JON ETXEBERRIA EDO... FEDE ETXABE GURPIL ETA GUZTI?

Hala badirudi ere, argazkian ziklista jantzita dagoena ez da Fede Etxabe, eta kamiseta laranja daramatenak ez dira Euskalteleko jarraitzaileak. Jon Etxeberria eta koadrilakoak Bastidan izan ziren joan den zapatuan, ezkondu aurreko parranda egiten. Jonek daukan itxurarekin, baina, ematen du txikiteoan hasi aurretik koadrilakoek Toloñon behera bota zutela bizikleta eta guzti. Hamarretakoa egin eta gero, 13:30ean hasi zuten txikiteoa, eta 14:30ean upelategi batera joan ziren bisita egin eta bazkaltzera. Bastidan ez, baina Gasteizen emakume asko hurbildu ziren Arrasateko ziklistarengana, zauriak larriak ziren edo ez galdetzerara. Eta emakume bat hurbildu orduko, hor ziren kamiseta laranja-jarraitzaileak, idoloa ondo zegoela esateko. Horrelako jarraitzaileekin, Tourrera!!!



Sikol

Olarte 31 - ARRASATE
Tel.: 943 79 89 32

*Maritxutarako
elegante
jantzi zaitez!*



IRVROK S.L.

KONTRATAK

ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

BOTEPRONTUEN

Ramon Ajuria Uranga

4QUATRO4 KONTZESIONARIOA

XABIER URZELAI

Ramon Antzuolan hasi zan kotxe asuntuen lanien, oin dala urte batzuk. Ordutik hona Fiaten, Opel en eta Autos Mendiolan ibilli da lanien. Todoterrenuen munduen sartute, bere kabuz negoziue jartie pentsau dau, eta barra-barra hasi da todoterrenuek saltzen.

Nundik nora ibilli zara agostuen?

Bueno, junixuen astebete egin neuen Fuerteventuran, bakarrik, negozio barrixe zela montau pentsetan. Eta, agostuen Huelvan egon gare, frankil-frankil.

Eta, lanera bueltie gogorra izen da?

Bai, gogorra izen da, negoziue martxan jarteko ibilli gare-eta lanien.

Kontzesionariue estrenau barri dozu; gustora?

Bai, gustora. Ez neuen pentsetan hasieratik horren harrera ona eukiko geuenik, baiñe ondo hasi gare.

Inguruotan todoterrenuekin ibiltteko leku faltarik ez dau.

Ez, todoterrenuekin ibiltteko oso paraje onak dauz inguruetan. Adibidez?

Degurixa, Alabitta, Gorbea, Urbixa ingurue be asko gustetan jat. Oin Aramaixon bizi naz, eta Anbotoste be oso politte da.

Gerueu eta todoterrenu gehixau ikusten die kalien.


Bai, demanda haundixe dauela esango neuke. Baserritarrak, ehiztariek eta kaleko jentiek be gerueu eta gehixau erosten dau holako kotxiek?

Eta, zergaittik?

Karreteran oso ondo dabitze-lako, eta mendixen edo pistetan ibiltteko aukerie emuten dauelako.

Ze ofreziduten dozu 4Quattro4 kontzesionariuen?

Gehixenbat bigarren eskuko todoterrenuek saltzen dittugu, bost urtetik beherakuek. Hamen badaukogu kotxe batzuk, baiñe zeozer konkretue gure izenez gero, geu arduraketan gare modelo hori tope-



"Bost urte baiño gutxiauko todoterrenuek saltzen dittugu, garantixiekin"

tan. Saldu aurretik, baiñe, todoterrenu bat ze dan espliketako nau hamen, dudak argiketako. Askok todoterrenue erosi eta reduktorie zetako dan be ez daue jakitten-eta.

Todoterrenuek, afiziñotik sortutako lanbidie?

Ez, baiñe gerueu eta gehixau gustetan jat. Oporretan be todoterrenu batekin juen gare, eta edarto ibilli gare. Rafa Etxabekin lan egindde todoterrenuen gaiñien asko ikesi neuen, eta holako kotxiekin kompetiduten dauen jentiek kursoren bat edo beste be egin dot. Holaxe ikesi dot gauza asko.

Negoziue jarterakuen animo faltarik ez dozu euki.

Ez, eta alde horretatik eske-

"Kontue ez da todoterrenuek saltzie bakarrik. Gero, zerbitzu bat ofrezidu biher da"

rrak emun gura dutziet kuadrillakuei, animo haundixe emun duste-eta. Batez be Baster-Aldeko Aitorrei, asko lagundu dust.

Zeure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Lanien serixue izetie, eta zerbitzu ona ofrezidutie. Kontue ez da kotxiek saltzie bakarrik, gero zeozer pasetan bada erantzun egin biher da. Bigarren eskuko kotxiek saltzen dittugu, baiñe saldu aurretik horreik kotxiok neuk erosten dittut, eta badakit ze erosi eta ze ez. Gaiñera, garantixiekin saltzen dittugu.

Ze marka dauketue?

Danetik daukogu, baiñe neuri Toyota eta Mitsubishi gustetan jat.

NIREBIDAIAHURA/ Leire eta Irati

Europako ekialdea / 2004ko abuztuan

Budapesten multak ordaintzen utzi genituen Leire eta Irati joan den astean: "Budapesten, baina, dena ez zen txarra izan; termetan, adibidez, ondo baino hobeto ibili ginen. Gainera, ez ziren batere garestiak". Gainera, badaude argitu behar diren gauzak: "Budapesten, Budako alde oso ondo dago, baina Pest ez zitzaigun batere gustatu. Hara joateko asmoa dauka nari esango genioke Pest-en minutu erdi ere ez galtzeko".

Budapestetik Txekiara hartu zuten trena: "Pragara joan ginen zuzenean, eta hiri hori izugarri gustatu zitzaigun. Giro ezin hobea zegoen, eta oso leku polita da". Pragan turista asko zebilen, Espainiatik eta Italiatik joandako asko: "Izan ere, oso leku turistikoa da. Judutarren auzoa deigarri iruditu zitzaigun, eta deigarriagoa oraindik euren kanposantua".

Bi egun egin zituzten Praga ezagutzen, eta handik Krakoviara abiatu ziren: "Esango genuke Krakovia dela Polonian bisitatzea gehien merezi duen lekua. Oso ondo zainduta dagoen lekua da, hango kaleak, plaza erraldoiak..." Auschwitz-en eta Birkenau-n ere izan ziren: "Auschwitz-eko kontzentrazio-esparrua museo bilakatu dute, eta benetan dela hunkigarria. Erakusleho batean, adibidez, zazpi mila kilo ile zuten batuta, eta beste erakusleho batzuetan zapatilak, arropak, hanka ortopedikoak...".

Eta, bidaiia amaitzeko Poloniatik Amsterdam-era abiatu ziren Leire eta Irati: "Joan den urtean ere han izan ginen eta aurtengo bidaiia ere leku berean amaitu gura genuen, Amsterdamen". Hiru egun egin zituzten han, lasai, hila-betean aurrera eta atzera ibili eta gero deskantsua hartzen. Eta, orduan konturatu ziren Arrasatera trenean beharrean hegazkinez itzultzea demasa izango litzatekeela".

XABIER URZELAI



Leire eta Irati, Pragan, Franz Kafkaren etxe aurrean.

"Krakovia da Polonian bisitatzea gehien merezi duena"

"Auschwitz kontzentrazio-esparrua museo bilakatu dute"



Mitarte 10
ARETXABAETA
943 77 06 12

- Plater prestatuak
- Familia edo lagun arteko bazkariak
- Bestelako ospakizunak

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82



Lilura
OIHALAK


Diseina ezazu Maritxutarako zure gustuko soinekoa.

Esku-poltsak, eskularruak, galtzerdiak...

Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72

RINOLOOK

Aurpegi, lepo eta sudurrean



- Aurpegiko eta gorputzeko mesoterapia, zimurrak
- Zelulitisaren liposukzioa
- Gizentasuna, orbanak, barizeak

Aginaga medikuarekin (1.806 elkargokide zenbakia)
Eskatu eguna eta ordua

MIREN GARAI

Zarugalde 23-2 ezkerra
Tel.: 943 79 96 90



GORTASUNAREN AURKAKO PREBENTZIO JARDUNALDIAK

Entzumenarentzako laguntza berriak: Erabateko Diskrezioa



**● Mikrokanala
la-ia ikusezina**

- ✓ Belarrira ezin hobeto egokitzen da.
- ✓ la-ia ikusezina.
- ✓ Bigarren mailako zenbait efektu gubützen ditu.



**● Belarri barrukoa
Erabateko diskrezioa**

- ✓ Belarri barruan jartzen da.
- ✓ Oso eroso.
- ✓ Solua modurik naturalenean erreproduzitzen da.



**● Belarri atzekoa
Entzumenarentzako
laguntzaren klasiko bat**

- ✓ Dotorea eta anatomikoa.
- ✓ Entzumen-kalitate ezin hobea.
- ✓ Erabiltzeko erraza eta gogorra.

**Audifono
analogikoa**

55 €-tik
aurrera
hilean

**Audifono
digitala**

83 €-tik
aurrera
hilean

DOHAKO ENTZUMEN AZTERKETA egitera gonbidatzen zaitugu.

Eskaintzen dizugun aukera honetaz ballatzea espero dugu. Ez utzi geroko, bakarrik hitzordua eskatu behar duzu.

GAES
ENTZUMEN ZENTRUAK

Otalora Lizentziatua, 18 behea • Tel.: 943 71 27 93

ARRASATE

San Migelak

04

S

an Migel jai bete-beteak ditugu Garagartzan. Mitologia, kultura, gastronomia eta parranda; horrek guztiak bat egiten du Ugaran ibarreko auzoan. Mitologian, Neanderthalgo gizakiak eta laminak ditugu protagonista. Urtero-urtero

ateratzen dira gordelekitik garagartzarrei bisita egiteko. Gastronomiari dagokionez, nork ez ditu sekula jan Garagartzako buzkantza goxoak? Oraindik halakoren bat badago, jaietan dauka aukera paregabea: 300 kilo buzkan-

tza gertu dituzte ordurako. Eta, kulturari eta parrandari dagokionez, esan auzo guztia ibiltzen dela Garagartzan jaiak prestatzen, eta, jakina, gero jaietz gozatzen. Hori baino kultura hoberik badago?... Ondo ibili!

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Ante Garagartza auzoa, 9
garajea Tel.: 943 79 82 59



**TXAPA ETA PINTURA
KONPONKETAK**



Belun

Garagartza auzoa Tel.: 943 79 61 14



Kobate HARROBIA
obaundi HORMIGOIAK

Ondo pasau Garagartzako jaietan

Tel.: 943 71 24 03. Faxa: 943 77 02 51 Posta kutxa: 85. Garagartza auzoa.

Egitaraua:

Irailaren 24an, BARIKUE edo EGUAKOTXA

- 19:30: Jaixen hasierie, ikurriñe igo eta etxaflero jaurtiketie.
19:45: Bertsolariak: gure bailara eta inguruko bertsolari gazteiek etorriko diez.
22:00: Dantzaldixe HAITZAMA taldearekin. Gaberdixen Lamiñei eta Neanderthal gizonei ongi etorrixe. Horren ostien dantzaldixe.
00:30: Bola Txapelketie.

Irailaren 25ean, ZAPATUE

- 12:00: Meza, auzoko hildakuen alde
12:00-14:00: KULKI (arrantzaleen joko eta jolasen jaixe)
16:00-18:00: Garagartzako Open futbol partiduek (umiendako)

- 18:00-20:00: Gorriti eta bere animaliak
20:00-23:00: Rock jaialdixe: Garagartzako Lehen Neanthertal rock kontzertua
23:00: Bola Txapelketie (ordubixek arte)

Irailaren 26an, DOMEKA

- 12:00: Meza nagusixe
12:30: Txikitxu taldeak euskal dantzak.
14:30: Auzo bazkaixe
Bazkalostien Erromerixie, TXINPARTA taldeak

Irailaren 29an, EGUAZTENA (atsaldien)

- 19:00: Mezie, Samigelen ohorez
19:30: Luntxe, Patxizenien
Barikuen eta zapatuen buzkentzak egongo die atsaldeko 7retatik aurrera, auzoetxien.

*Paraje eder
baten kokatua*

Arteaga

Landetxea

*Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82*

ESKUBALOIA

'Pitxi' Herreroren omenezko eskubaloi jaialdia izango da zapatuan, Iturripen

Arrasateko taldeen aurkezpenak, beteranoen norgehiagokak eta AGRren eta Gipuzkoako selekzioaren arteko norgehiagokak osatuko dute jaialdia

XABIER URZELAI

Ekainaren 30ean hil zen Arrasateko talde nagusiko entrenatzaile **Pitxi** Herreroren. Eta, merezi duen moduko omenaldia egiteko Arrasateko Eskubaloi Taldeak eskubaloi jaialdia antolatu du biharko.

Bihar, 17:00etan hasiko da Jesus Mari Herreroren **Pitxi**ren omenezko eskubaloi jaialdia. Ekitaldiaren hasieran, Arrasateko taldeak aurtengo denboraldian maila bakoitzean izango dituen jokalariek aurkeztuko ditu. Ondoren, **Pitxi**ren alargun Ines Azpiazuk Arrasateko taldearen, eskubaloiko hainbat federazioen eta Gipuzkoako hainbat talderen eskutik oroigarriak jasoko ditu. Esan gabe doa momentu hunkigarriak izango direla horiek, baina Inesek familiakoak gertu izateaz gain, Arrasateko Eskubaloi Taldeko guztiak ere ondoan izango ditu, babesa ematen.

Eta, oroigarriak banatu eta gero, egun berezi horretarako bereziki prestatu dituzten bi norgehiagoka egongo dira ikusgai.

HASTEKO, BETERANOAK

Hasiara baten, Arrasateko taldeko zuzendaritzakoek pentsatu zuten hirunako txapelketa antolatzea, eta hiru talde horietako bat Arrasateko beteranoek osatzea. Beteranoekin berbetan hasi zirenean, baina, konturatu ziren eurekin bakarrik bi talde osatzeko nahikoa jokalaririk izango zituztela, lagun asko animatu ziren-eta. Hori dela-eta, hiruko txapelketa antolatu beharrean lagun arteko bi norgehiagoka egingo dituzte.

Lehenengoan beteranoek jokatuko dute elkarren kontra, eta bigarren norgehiagokan, AGR Arrasateko taldekideek Gipuzkoako hainbat jokalarirekin osatu duten selekzioaren kontra neurtuko dituzte indarrak. Besteak beste, Bergarako, Ormaiztegi, Urretxuko eta Legazpiko jokalariek izango dira Arrasa-



Norgehiagoka ikusgarriak izango dira bihar: beteranoen norgehiagoka alde batetik, eta AGRko eta Gipuzkoako selekzioaren arteko partidua, bestetik.

ten. Oñatiko taldeak ere hartu gura zuen esku **Pitxi**-ren omenez, baina oraingo asteburuan hasiko dute Liga Txapelketa; horrenbestez, ezingo dute Iturripen egon.

AURTEN, BOST TALDE

Arrasateko Eskubaloi Taldeak bost talde izango ditu aurten. Lehenengo taldeak lehen territorial mailan jokatuko du, eta Andoni Arandok eta Juan Luis Isasmendik zuzenduko dute taldea. Lehen taldeari dagokionez, Andoni Arandok azaldu ditu taldeak aurten izango dituen helburuak: "Lehenengo helburua Euskadiko Mailara igotzeko igoera fase-ra sailkatzea izango da, eta hori

Lehenengo, Arrasatek aurten izango dituen bost taldeak aurkeztuko dituzte

egiten badugu Euskadiko Mailara igotzeko egingo dugu lan".

Hori lortzeko taldeak gauza handia egin du, joan den urteko taldea mantentzea, hain zuzen: "Alde horretatik eskerrak eman gura dizkiet taldeko jokalariei hainbat klubetako eskaintzak izan

Beterano asko animatu da, eta euren arteko norgehiagoka egitea erabaki dute

arren Arrasaten geratzea erabaki dutelako".

Gainontzeko taldeei dagokionez, bigarren territorial mailako taldea zuzentzen Bernardo Balerdi, Pedro Uribe eta Jon Akizu izango dira. Gazte mailako mutilen taldean, berriz, Asier Vinue-

Amaitzeko, AGRk eta Gipuzkoako jokalariek osatutako selekzioak jokatuko dute

sa eta Agustin Rodriguez ibiliko dira entrenatzaile lanetan, eta maila horretako nesken taldeko entrenatzaileak izango dira Zigor Masip eta Manolo Lopez. Azkenik, kadete mailako taldea zuzentzeko arduna izango dute Beñat Irababalek eta Haritz Zubiatek.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Inoiz baino maila handiagoa IV. Arrasate Hiria Xake Txapelketan

XABIER URZELAI

Gaur arratsaldean hasiko dute IV. Arrasate Hiria Xake Txapelketa. Aurtengoa inoiz baino maila handiagoko txapelketa izango da, punta-puntako hainbat xakelari gonbidatu dituzte-eta. 33 parte-hartzaileen artean nazioarteko maisu batek eta FIDE mailako bi maisuk jokatu dute.

Gaur, egubakoitza, 19:00etan hasiko dute Arrasate Hiria Xake Txapelketako laugarren edizioa. Txapelketa Arrasateko taldeak Altamiran duen egoitzan jokatu dute. Antolatzaileak pozik daude punta-puntako txapelketa antolatzea lortu dutelako: sari onak (2.000 euro saritan), parte-hartze handia eta izen handiko xakelariak jokatu dute Arrasaten.

RODNEY PEREZ FAVORITO

Esan gabe doa txapelketan esku hartuko dutenen artean nazioarteko maisu Rodney Perez kubarra dela favorito. Hala ere, bi kontrario gogor izango ditu: Miguel Navarro nafarra eta Barbadosko (Karibea) Ricardo Szmetan. Bi xakelari horiek dira kubarriari aurre egiteko ondoen gertatuta daudenak. Horrek ez du esan gura, baina, gainontzeko xakelariak ez dutenik lanik emango; hiru xakelari horiez gain, beste hamabost daude-eta nazioarteko rankingean sailkatuta.



ARRASATEKO SAN ANDRES XAKE TALDEA

Argazkian, Arrasateko taldeko Txema Hernando eta Josu Tornay.

NAZIOARTEKO MAILARAKO BALIAGARRI

Arrasateko txapelketa baliagarria izango da xakean dauden sailkapenentarako: FIDE, FEDA eta FVA. Horrek esan gura du txapelketa horietan eskuratuko dituzten puntuek ranking horietan gora egiteko balioko dutela. Eta, aukera hori aprobetxatzen ahaleginduko direnak Arrasate-

ko taldeko xakelariak dira, hain zuzen ere.

Arrasatearrei dagokionez, Luis Angel Ortégak rankingeko zortzigarren postuan hasiko du txapelketa, eta Josu Tornayk bederatzigarrenean. Iaz Josu Tornay izan zen txapelketako onena, baina aurten zail izango du joan den urteko lorpena errepikatzea.

FOTOKIROLA



Bihar hasiko du Arrasateko taldeak Liga

Arrasateko Saskibaloitza Taldeak bihar, zapatua, hasiko du Liga Txapelketa, Donostian. Arrasatearrek UPV Atletico San Sebastian izango dute kontrario (20:00etan, Aieten). Datorren astelehenean egingo dute, baina, taldearen aurkezpena. Taldeko jokalariek aurkezteaz gain, Ointzek izango dituen babesleak aurkeztuko dituzte: Mugarri eta Alkesa. Hala, aurrerantzean Mugarri Alkesa Arrasate izango da etxeko taldeen izena. /X.U

EHIZA

Leintz elkarteak antolatuta, Arrasateko Ehiza Txapelketa jokatu dute domekan

Leintz elkarteak Santa Fierron (Arabako Errioxa) egingo du Arrasateko Ehiza Txapelketa, domekan. Eta, joan den urteko harrera izaten badu, hogeita hamar lagunetik gora elkartuko dira txapelketan. Azkeneko hiru txapelketak Ramon Ramilak eskuratu ditu, eta domekan laugarrena eskuratzea izango du helburu.

Liga ondo hasi duen Trintxerpe izango da domekan Atxabalpen

XABIER URZELAI

Hirugarren postuan dagoen Trintxerperen bisita izango du Mondrak domekan (16:30ean). Trintxerpek Mondrak baino puntu bat gehiago du, baina etxean lortu ditu denak.

Laugarren jardunaldian zaila da aurreikuspenak egitea, baina Trintxerpe taldeak bi gauza era-

kutsi ditu aurreko hiru norgehiagoketan: batetik, etxean jokatzeko duenean oso talde indartsua dela, Pasaia (2-1) eta Touring (2-1) taldeei irabazi die-eta; gainera, bi talde horiek ez dira preferenteko talde makalena. Etxetik kanpo, baina, Trintxerpekoak ez dira horren indartsuak, Aretxabaletak 2-0 irabazi zien-eta. Lehen ere esan dugu, baina, hiru jardunaldi baino jokatu ez

dituztenean ezin dela aurreikuspen handirik egin.

Mondrak, berriz, oraindik ez du partidurik galdu, eta etxetik kanpo jokatu dituen bi norgehiagoketan puntu bana ekarri du. Etxean, berriz, arrasatearrek norgehiagoka bakarra jokatu dute, eta itxura ona erakutsi zuten, Bergarari 3-0 irabazita. Etxean ondo eta kanpoan etekina atera, formula hoberik?



GOIENKARIA

Zapatuan, iruditan azaltzen den Keixi-k eta Tiri-k egin zituzten Mondraren golak.

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

Aretz

Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

Uarkape

jatetxea

Plater konbinatuak, bokatak,
eguneko menuak, karta.

Maritxu egunerako dena prest!
Ondo pasatu!!

Otalora lizentziatua 10 Tel.: 943 77 20 04 ARRASATE

KULTURA ONDAREA/ Arrasateko Udal Artxiboak jasandako uholdea

Uholdeak kaltetutako Udal Artxiboko dokumentu guztiak, berreskuratzeko bidean

IKER BARANDIARAN

Dagoeneko kontrolpean daude Udal Artxiboan jazotako uholdearen kalteak. Kaltetutako dokumentu gehienak berreskuratu dituzte eta Oñatiko protokoloaren artxiboan daude. Gutxi batzuk izoztuta daude, tratamendua egiteko zain. Ez da ezer galdu.

Abuztuaren bukaeran izugarriko ustekabea izan zuten udaleko langileek. Udal Artxiboa dagoen sotoa urak hartu zuen. Lurretik metro erdiko altuerara zeuden dokumentu gehienak busti egin ziren. Udaletxean dagoen ondarearen %20, gutxi gorabehera. Horietatik 178 kaxatan, XIX. mendera arteko informazioa dago; eta gainontzeko 1.092ak kaxatan, XX. mendeko informazioa.

Udaleko langileek erabakiak berehala hartu behar izan zituzten. Dokumentu historikoei lehentasuna eman zieten, eta horiek bulegoetan eta osoko bilkuren aretoan lehortzen jarri zituzten. Aldundiarekin harremanetan jarri ziren, eta Oñatiko protokolo artxiboko aditu bat etorri zen kalteak ebaluatzera. Kalteak uste baino handiagoak ziren. Paper lehorgarria bidali zieten, eta dokumentu guztiak Uarkape pilotalekura eraman zituzten, han tratamendua emateko.



Ikusgarria izan zen Uarkape pilotalekua dokumentuz beteta ikustea. Udal Artxiboaren %20 batu zuten han.

IKER BARANDIARAN

ETENGABEKO LANA, DENA LEHORTZEKO Behin kaltetutako dokumentu guztiak Uarkapera eraman ostean, Udalak unibertsitate ikasketak zituzten 40 lagun kontratatu zituen. Ez zuten prestakuntza berezirik behar. Hori beharrean, dokumentuak kontu handiarekin ibiltzea eskatu zieten. Lehorte lan horiek Udaleko hiru lagunek eta Madrilgo aditu batek gainbegiratu zituzten.

Bi tratamendu egin dituzte: batetik, dokumentu historikoak paper lehorgarriarekin tratatu dituzte. Gehienak liburuak edo jositako paperak dira. Oso egoera txarrean zeudenak izoztu egin dituzte. Horren bitartez, kaltetze prozesua eten egiten da, eta gero horretarako denbora hartzen dutenean, beste tratamendu bat egingo diote. Bestetik, gaur egungo dokumentuak orrialdez orrialde lehortu behar izan dituzte. Oso prozesu luzea izan da. Are gehiago, papera lehortzen den heinean, gogor gelditzen da. Orriak kontu handiarekin bereizi behar dira, eta gero ordenari eutsi.

LEHORTUTAKO DOKUMENTUAK, OÑATIRA Joan den asteburuan Uarkape osoa betetzen zuten dokumentuak lehortzen bukatu eta Oñatiko protokolo artxibora eraman zituzten. Udaletxeko biltegia egoera



MARIJO AXPE

ARRASATEARRA / UDAL ARTXIBOKO ARDURADUNA

“Ondare garrantzitsua dago, Erdi Aroan eta XVI. mendean Arrasate oso garrantzitsua izan zelako”

Marijo Axpe arrasatearra da Udal Artxiboko arduraduna. Lan horretan dihardu aspalditik, eta ezuste galanta hartu zuen abuztuaren bukaeran. Dagoeneko kontrolpean daukate uholdeak eragindako arazoa, eta lasaiago dago. Udal zerbitzu horren gainean galdetu diogu, herri-tarrek ondare hori ezagut dezaten.

Orain arte herritar askok ez zuten jakingo Udal Artxiboa non zegoen. Zelako dokumentuak aurki daitezke han?

Hemen daukagu Udalak sortutako dokumentazioa eta baita ere Udalak jasotakoa. 1260tik, Hiri Gutuna egin zenetik, gaur egunera arte denetik daukagu: Udaleko kontuak, protokoloak, Udalaren akordioak, planoak, lanen espedienteak, kontuak, ordainketak...

Herritarrek eta bestelako adituek erabiltzen dute kontsultak egiteko?

Bai. Bi kontsulta mota daude: bata, barrukoa, Udaleko teknikariek lanerako ematen dioten erabilpena. Proiektuak, legeak eta bestelakoak aztertu behar izaten dituzte. Bestea kanpukoa da, arrasatearrek eta bestelakoek egiten dutena. Zuhaitz genealogikoa egiteko, doktore-tesirako... Horrez gain, Gipuzkoako Batzar Orokorretako agiri batzuk dauzkagu, Tolosako artxiboan ere ez dituztenak, eta aditu asko etortzen dira horiek ikuskatzera.

Beste herri batzuekin konparatuta, dokumentuen ondare handia daukagu gordeta Arrasaten?

Bai. Batez ere, Erdi Aroari dagokiona, eta fondo historikoa ere oso garrantzitsua da. Arrasatek historia luzea dauka, eta udalerrria oso garrantzitsua izan zen Erdi Aroan eta baita XVI. mendean ere. Hori guztia dokumentazioan islatzen da, kopuruan eta kalitatean.

Uholdeak Udal Artxiboko dokumentuen %20, 1.270 kaxa, kaltetu zituen

Artxiboan uholdea zergatik gertatu zen jakin artean, Oñatin geldituko dira dokumentuak

Udaletxean dagoen dokumentazioa, artxiboaren %80, kontsultatzeko moduan dago

onean dagoela erabaki artean han egongo dira dokumentuak.

EZ DA INFORMAZIORIK GALDU

Udal Artxiboko arduradun Marijo Axpe lasaiago dago, dokumentu guztiak errekuiperatu direlako: “Batzuek hezetan arrastoak dituzte edo apur bat urrututa daude, baina garrantzitsua da informazioa gorde egin dela, eta guztiak irakur daitezkeela”. Hala ere, Axpek badu beste kezka bat. Oraindik ez dakite uholdea zergatik gertatu zen, eta hori argitu eta halakorik berriro ez gertatzeko neurriak hartu artean ez dituzte dokumentuak Oñatitik Arrasatera ekarriko.

Egin beharreko larrialdizko prozedura horrek udal langileei lagundu die dituzten dokumentuen gaineko ezagutza hobea izaten. Are gehiago, konturatu dira gaur egungo paper eta tinta mota batzuk bustiz gero, informazioa erraz gal daitezkeela. Dokumentu zaharrek, berriz, emaitza hobea ematen dituzte. Ur gehiago hartzen duten arren, hobeto lehortzen dira.

Orain, udal langileek biltegiari desinfektazio tratamendua egingo diote. Dena dela, Arrasateko Udaleko arduradunek gogoratu dute Arrasaten dagoen dokumentazio guztia eskuragarri dagoela kontsultak egiteko. Horrez gain, informazio guztia Arrasatera ekarri artean Oñatin dauden dokumentuak kontsultatzeko bideak jarri gura dituzte.



*Maritxu Kajoi
egunean afari
berezirik egiteko
asmorik bai?*

MENU BEREZIA

Porruak ozpin-oliotan
Endibia eta gazta entsalada
Kabarroka budina
Piper beteak

Entrekota
Orein solomilloa
Piperrez lagundutako bakailaoa
Lupia laban

Txokolate tarta
Gazta tarta
Torradak
Kafe flana

18 euro.
Kafea, ardoa eta BEZa barne

**Tel.: 943 78 90 85
ELGETA**

www.espaloia.com

Espaloia Kafe Antzokia

KULTURARENDAKO GUNE BERRIA

Maritxu nora zoa

Zure ametssetako trajea dugu...

Iturriaga Bartolo

iturriari zer dago

ardotxo zuria

biok edango

nahi degun

Aukerarik zabalena
festarako soineko,
barruko moda
eta osagarrietan.



**Maritxu Kajoi
2004**

Casa Ceciaga

Maalako Errabala, 3
ARRASATE
Tel/Faxa: 943 79 12 62

Etzi, domeka, 'Sonata segundu batean... eta piku' antzezlanana egingo dute Amaian

IKER BARANDIARAN

Etzi, domeka, ikasturte honetako lehenengo antzezlanana egingo dute Amaia Udal Antzokian. Tartean taldeak *Sonata segundu batean... eta piku* ikuskizuna egingo du. Patxo Telleriak idatzi du gidoia, eta Aitor Mazok egin ditu zuzendari lanak.

Antzerkia gustuko dutenak pozik egoteko moduan daude. Izan ere, etzi, domeka, Tartean taldeak *Sonata segundu batean... eta piku* lana eskainiko du. 19:30ean izango da, Amaia Udal Antzokian. Lan horrekin hasiko da ikasturte honetako antzezlanen eskaintza. Urrirako beste antzezlan batzuk iragarri dituzte.

Lan horren gidoia Patxo Telleria aktore eta gidoilariak idatzi zuen, eta Telleriak berak eta Aitor Mazok egin dituzte zuzendari lanak. Ekoizpena Tartean taldeak egin du.

Sonata segundu batean... eta piku ikuskizunak zuzeneko musika, kabareta eta klown kutsuko umorea uztartzen ditu, besteak beste. Patxo Telleriaren esanetan, "arrakasta itxurako porrot baten komedia da, edo desioaren eta



IBAN GORRITI

Euskal aktore ezagunek esku hartzen dute lan horretan.

errealitatearen arteko lehia". Horren harira, Telleriak honako azalpena ematen du, bide batez istorioaren testuingurua azalduz: "Musikari trebe bat bizitzaren kapritxo bategatik *show-business*-ean arrakasta izatera iritsi eta gero, matxinatu egin nahiko luke, baina ez daki zelan".

Lan horren bitartez, Telleriak bizitzan egiten dugunaren eta egin barik uzten dugunaren gaineko hausnarketa sakona eta umoretsua egin gura izan du. Telleriaren esanetan, protagonistaren ideia hartzeko, M. Tourner-en *Nire zoriona ez dadila sekula bukatu* narrazio laburra

hartu zuen abiapuntu. Eta beste zati bat Aitor Mazo eta Jokin Oregiri zor die.

Musikak garrantzi handia dauka lan horretan, eta Jose Luis Canal izan da musikaren eta moldaketaren egilea.

EUSKAL AKTORE EZAGUNAK

Antzezlan horretan hiru aktorek esku hartzen dute: Patxo Telleriak (Baxter), Inaxio Tolosak (Jota) eta Jose Cruz Gurrutxagak (Txus), hain zuzen ere. Hiru aktore horiek musikariak ere izango dira. Baxterrek pianoa joko du; Jotak, haize-instrumentuak eta pianoa; eta Txusek, baxua.

Hiru protagonistek ibilbide luzea dute antzerkigintzan: azken hogeitazuzen Patxo Telleriak aktore eta gidoilari lanak egin ditu antzerkian (Maskarada, Artescena, Tentazioa, Txirene...) eta ETBn; Inaxio Tolosak antzezlan askotan esku hartu du aktore lanetan (*Laurel y Hardy van al cielo*, *El hombre que confundió a su mujer con un sombrero...*) eta Karidadeko Benta musika taldeko kide ere bada; eta azkenik, Jose Cruz Gurrutxagak *Goenkale* telebistailean egin zuen lan bost urtez, eta antzerkian eta beste telebista kateetan dihardu.

KULTURAPILULAK

George W. Bushen aurkako 'Fahrenheit 9/11' dokumentala

Bihar, zapatua, eta etzidamu, astelehena, *Fahrenheit 9/11* dokumentala emango dute Amaia Udal Antzokian. Zapatuan, 19:00etan eta 22:00etan emango dute; eta astelehenean, berriz, 20:30ean.

Ospe handia hartu du film horrek. Batez ere, AEBetako presidentea George W. Bushen aurka gogor egiten duelako, eta presidentearen hainbat ekintza salatzen dituelako.

Film horren zuzendaria Michael Moore polemikoa da. Polemikoa diot, berak idatzitako liburuek eta egin dituen filmek bazterrak zeharo astindu dituztelako. Bushen aurkako dokumentalaren aurretik, AEBetako armen erabileraren gaineko *Bowling for Columbine* lana egin zuen. Dokumental horrek sari garrantzitsuak irabazi zituen.

Fahrenheit 9/11 dokumentalak 122 minutu irauten du, eta AEBetako presidenteari gogor egiten dio etengabe. Haren trapezio zikin ugari azalera aterako ditu. Filmak zentsura handia jasan behar izan du, batez ere AEBetan, baina milioika ikusle ikusi dute mundu osoan.

Ibarreko musika taldeendako Danbaka musika lehiaketa

I.B.

Joan den astean iragarri genuen Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketa. Ibarreko (Aramio barne) musika talde eta bakarlari guztiei zuzenduta dago. Interesatuak hiru abesti originalen osatutako grabazioa aurkeztu beharko dute urriaren 7a aurretik.

Goienak eta Elgetako Espaloia Kafe Antzokiak Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketa antolatu dute. Helburuak dira

ibarreko musika taldeei ezagutzera emateko aukerak ematea eta gazteei gustuko alternatibak eskaintzea.

Lehiaketan esku hartzeko bi baldintza daude: bata, taldeko partaide bat, gutxienez, Debagoienekoa izatea; eta bestea, aurretik talde horrek diskoak grabatu arren, une honetan ez du diskoetxeekin inolako kontraturik izan behar.

Musika estilo guztiak onartuko dira, eta euskaraz, gazteleharaz zein beste hizkuntzatan abestu ahal izango dute.

Interesatuak urriaren 7a aurretik honako materiala aurkeztu beharko dute: hiru abesti originalen osatutako grabazioa, abesti horien izenak, taldearen biografia laburra, taldearen edo partaideen argazkiren bat eta taldearekin harremanetan jartzeko helbide edo telefono zenbaki bat.

SAILKATUTAKOAK ZUZENEAN LEHIATU

Epaimahaiak hogeitazuzen aukeratuko ditu, eta horiek zuzenean joko dute. Bi sari egongo dira: disko baten grabazioa eta musika instrumentuak.



IKER BARANDIARAN


Ibarrean oso talde onak daude. Argazkian, Arrasateko The Jukebox.

Angela Estetika Zentroa

100 €-ko deskontua

Laser bidezko zangoen depilazioan saio bakoitzeko egingo da deskontua

Saio kopurua norberak erabakiko du



Ferrerias 35 ARRASATE 943 79 88 23

Gorputzeko gainontzeko ataletan laser bidezko depilazioa egin nahi baduzu, zator eta prestatu ditugun eskaintza bereziak ezagutu itzazu.

EZETZASMATU



Non dago argazkian ikusten duzuen leihoa?
Arrastoa: antzinako jauregi batekoa da.

IKER BARANDIARAN

Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

La Gula del Norte
200g

4,60€ 765 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ELISABET PEREZendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Elisabet!
Galderen erantzun zuzena:
Zerrajera.

ARRASATEKO HISTORIA


Mondragon izenaren nondik norakoak

MAALAKO ERREBALA / VELEZ DE...

Historian oso atzera egingo dugu eta Arrasate edo Mondragonen hasierara joko dugu Josemari Velez de Mendizabalek gidatuta. Hara berak zer dioen:

"Ezaguna da Mondragon hiria 1260 urtean sortu zuela Gaztelako Alfontso X. Jakintsuak (...). Eta nire iritzia bat egiten du Jose Mari Uranga herriko historialariarekin. Beti izan diot errespetu handia Jose Mariri, oso serioa iruditu zaidalako bere teorietan. Eta asmamenak batzuei eskaini dien hegaldi erotik urrun, oinak lurrean jartzen jakin izan du Urangak, bere apaltasunean. Beraz, haren bertsioa nire eginez, San Juan Bataiatzailea eliza irauarazi eta eraberritzeko lanetan hasi zeneko txostentxoan ageri nuena dakart ondoko lerroetara.

1260an Alfontso X.ak Mondragon hiria sortu zuenerako, bere gortean oso gizon garrantzitsua ei zen D. Guillen de Mont-dragon komendadorea, San Juan Bautista Ordenakoa, gero Maltako Ordena izango zena, hain zuzen. Komendadore horren sendiak zerbitzu handiak eskaini zizkion gaztelar erregeari eta, pentsa liteke, Mont-dragon sendiaren leialtasuna nolabait



MAALAKO ERREBALA / LIBURUA

1340az geroztik gehitu zizkieten herriko armarrari hegoko itsasoetako uhin urdinak eta Ugaran eta Leintz bailaretako bi haritzak.

sariztazearren, *Arressate* herririka zaharrean eraikitako hiri berriari haien deitura eman ziola. Suposamendu hutsetako eremuan ari naiz, ikus daitekeen bezala, baina Mondragon sortu zenetik gure egunera arte, herriaren izena dela eta izandako teorieta-

'Arresaten' eraikitako hiri berriari Mont-dragon sendiaren izena eman zioten

tik logikarik gehien duena hori bera dela iruditzen zait. Historialariaren batek oker nagoela frogatuko balit, batere zalantzarik gabe, nire suposamendua bertan behere utziko nuke, egiari heltzeko.

Nola lotu Mont-dragon sendia eta gure hiria? Historiaren mai-

letatik gora egin beharko genuke, 1212an gertaturiko Navas de Tolosako borrokaldira arte. Mont-dragon abizena azaltzen da bertan eta adoretu aritu bide ziren, Miramolin kalifaren gotorlekua erasotuz, besteak beste, Nafarroako Santxo VII. eta Bizkaiko Jaunarekin batera. 1212 baino lehen Mont-dragon sendiaren armarrarian, mendi erpintsu baten alboetan eta barruan hiru herensuge azaltzen ziren. 1212az geroztik eta 1340 bitartean, armarriko xehetasun horiei Navas de Tolosako kateak gehitu zitzaizkien. Izan al zen 1260an sorturiko Mondragon hiriaren armarraria Mont-dragon sendiarena? Baliteke. Eta sendiaren heraldika-prozesuari jarraiki teoria horri ez zaio logikarik falta. (...) 1340an mondragoetarrak mairuen kontrako Saladoko borrokaldian egon ziren, Errege Katolikoek kronistak urte batzuk beranduago kontatu zuenez. Baina (...) Mont-dragon sendiak zuzendu al zituen haraino? Ez nuke ezetz esango. Zergatik? 1340tik aurrera, sendi horren armarrarian mendi eta erret gaztelu bat ageri dira, aurreko hiruetatik uzten den herensuge bakar batekin eta Navas de Tolosako kateekin. Hain zuzen ere, Mondragon gure hiriaren armarrarian ditugun zehazkizun berak".

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko irailaren 24a / 122. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Haur Eskolarako proiektu berria egin du Udalak

U.M.

Haur Eskola egiteko proiektu berria aurkeztu behar dio Udalak Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari. Hala jakinarazi zuen alkateak oraingo astean egindako osoko bilkuran.

Haur Eskola dela-eta, Mertxe Mondragon alkateak udalbatzarri jakinarazi zion Jaurlaritzako Hezkuntza ordezkaritzak atzera bota duela Udalak aurkeztutako proiektua. Emandako arrazoien arabera, ordezkaritzak ez du uste Udalak Haur Eskolarako aukeratutako instalazioen baldintzak onargarriak direnik. Hala, Udalarari eskatu dio beste tokiren bat aurkitzeko Haur Eskolarendako. Eta Mertxe Mondragon alkateak udalbatzarri jakinarazi zion dagoeneko aukeratu dutela leku hori, lanen proiektua ere eginda dutela eta datorren astearen amaiera aldera aurkeztuko diotela ordezkaritzari.

ESKOLAREKIN HASERRE

Horrekin batera, alkateak jakinarazi zuen haserre dagoela San Martin Eskolako batzarrak gai honetan izandako jarrerarekin. Izan ere, hasierako proiektua aurkeztu ostean, Udalak jakin izan



Gogor salatu zuen Mertxe Mondragon alkateak eskolakoek izandako jarrera.

zuen eskolak beste proiektu bat aurkeztu zuela bere kabuz, Udalak aurkeztutakoa baino bi bider garestiagoa. Jakin zuen, baita ere, eskolakoek indarra egin zutela Hezkuntza ordezkaritzan Udalarren proiektua onar ez zezaten.

Gauzak horrela, eta eskolako en jarrera salatu eta gero, Mertxe

Mondragonek esan zuen espero duela oraingo honetan halako interferentziarik ez egotea. Eta behin eta berriro gogora ekarri zuten Udalak ez duela dirurik eta Haur Eskola egiteko Udalak ezarritako aurrekontuaren muga 60.000 euro ingurukoa dela eta horretara mugatu beharko direla.

Aramaioren gaineko argazki lehiaketa antolatu dute

U.M.

Aramaioren gaineko argazki lehiaketa antolatu du Udalak. **Aramai bere edertasunean izenburua du. Urriaren 15era arteko astia utzi dute argazkiak aurkezteko.**

Argazki lehiaketako parte-hartzaile bakoitzak nahi beste argazki aurkeztu ahal izango du, koloreetan zein zuri-beltzean. Hori bai, argazki bakoitzari izenburua eta atera zeneko data ipini beharko dizkio. Era berean,

argazki bakoitza gutun-azal batean aurkeztu beharko da, argazkiaren izenburua eta data gutun-azalean ipinita.

Lehen esandako moduan, urriaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira argazkiak. Udal Liburutegira edo udal txerara bertara eraman behar dira. Hala, aurkeztu diren argazki guztiak Udalarren esku geratuko dira eta aurrerantzean argitaratuko dituen egutegi, liburuxka eta antzerakoetan erabili ahal izango ditu, betiere, egilearen izena ipinita. Epaimahaia bera

ere Udalak antolatuko du, herriko jendearekin.

SARIAK ETA SARI BANAKETA

Hiru sari banatuko dituzte: lehenengo saria 150 euro; bigarrena 100 eta hirugarrena 75 euro. Azaroan jakinaraziko dute epaimahaiaren erabakia; hain zuzen ere, azaroaren 22an banatuko dituzte sariak, 19:00etan, kultura etxean. Horren ostean, jasotako argazkiekin erakusketak ipiniko dute Sastiñan. Informazio gehiago behar duenak udaletxean edo kultura etxean dituzte lehiaketaren oinarriak.

Bertso eskola handitu egingo dute aurten

U.M.

Berritasunak datoz aurtengo ikasturtean Aramaioko Bertso Eskolara. Batetik, irakasle aldaketa izango da eta bestetik, talde gehiago sortuko dituzte. Ikasturtea urriaren aurreneko astean hasiko da, Maritxu Kajoi egunaren ostean. Hala adierazi digu eskolako arduradun Manex Agirrek.

Manex Agirrek jakinarazi digunez, berak eskola utzi beharko du behin-behinerako, ikasketa kontuengatik. Hortaz, bera ordezkatzeko irakasle berria hartu beharko dute eskolarako. Horrez gainera, adierazi digu aurtengo ikasturtean bi talde berri sortu nahi dituztela Aramaioko Bertso Eskolan. Euren asmoa da txikiendako talde bat sortzea, 9 urtekoendako, eta beste bat 15-16 urteko gazteendako. Beti ere, Udalak hori egiteko nahikoa dirulaguntza ematen badie. Manex Agirrek esan digunez, azken urteotan ber-

tsotan ikasteko eta jarduteko eskaera handia sortu da herriko neska-mutil gazteen artean.

IRAKASLE BERRIAK

Hala, sortuko diren talde berriendako eta Manex Agirrearen lekua betetzeko, irakasle berriak izango ditu bertso eskolak. Oraindik guztia ondo lotzeke dutela jakinarazi digu Manex Agirrek, baina aurreratu digunez asmoa da orain arte bi irakasle izan diren lekuan (Manex Agirre eta Enaitz Alustiza), aurtendik aurrera lau irakasle izatea; honako hauek, hain justu ere: Iñaki Viñaspre, Iker Agirre, Gillen Agirre eta Lierni Altuna.

ORAIN, HIRU TALDE

Gaur egun hiru talde ditu Aramaioko Bertso Eskolak: 10-11 urte bitarteko neska-mutikoen talde bat; 13-14 urte bitarteko beste bat eta 17-18 urte bitarteko gazteen hirugarren bat. Guztira, 30 bat neska-mutilek jarduten du bertsogintzan.

Datorren astean irekiko dituzte ehizarako postuak

U.M.

Azken asteotan ibili dira zozketatzen aurtengo ehiza-postuak. Egun hauetan, akreditazioak-eta jasotzen ibili dira herriko ehiztariak. Izan ere, irailaren azkeneko astean bukatuko da hegazti-migratzaileak ehizatzeke debekualdia. Bereziki, usoak, ahateak eta birigarroak ehizatuko dituzte.

Oilogor Ehiza Taldeko presidente Eduardo Fernandezek esan digunez, nahiz eta ehiza denboraldia abuztuan hasita egon, irailaren azkeneko astean zabalduko dituzte hegazti-migratzaileak ehizatzeke herriko postuak. Aramaioren halako ehundik gora postu dago, mendietan sakabanututa. Eta ehiztarien elkarteak berrehundik gora bazkide ditu (Aramaiokoak eta Aramaiorekin harremanen bat duten ingu-

ruko zenbait ehiztari banel). Hala, bazkideak bikoteka banatu eta postuak bikote horien artean zozketatu dituzte. Egun bakoitzerako postu bat. Izan ere, helburua da bazkideek posturik ez errepikatzea, guztiak baldintza berak izateko.

ORAIN DELA PARE BAT URTE

Hala, irailaren amaieran hasiko dira ehiztariak zeruari begira, hegazti-migratzaileen zain. Hain zuzen ere, usoak eta birigarroak dira orain nagusi, bata ahateak ere.

Aramaioko ehiza-babeslekuak Udalarena da. Orain dela pare bat urte atera zuten enkantera eta Aramaioko Oilogor Ehiza Taldeak eskuratu zuen. Harrezkero, ehiza-postuak zozketatzeaz, ehiza-babeslekuak baldintza egokiak izateaz arduratzen da herriko elkarteak.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erretzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martín Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kirolegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

KONTRIBUZIOA PAGATU BEHAR

Aramaioko Udalak jakinarazi digunez, 2004ko Hiri eta Landa-lur Ondaşun Higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko epea laister zabalduko dute. Hain zuzen ere, urriaren letik azaroaren 30era arte borondatez ordaintzeko epea izango da. Bankuan helbideratuta dauden erreziiboak, berriz, urriaren 20an kobratuko dituzte. Eta helbideratuta ez dauden erreziiboak Vital Kutxaren edo Euskadiko Kutxaren Aramaio bulegoan ordain daitezke lehen aipaturako borondatezko epean. Behin epe hori pasatu ostean, ordaindu bariko erreziiboak %20ko gainkarguaz kobratuko dituzte.

GUDARI EGUNA

Astelehenean, hilak 27, Gudari Eguna izango da. Hala, Aramaion ekitaldirik egingo ez duten arren, herriko ezker abertzaleak dei egiten du Arrasatera jotzeko. Manifestazioa egingo dute, 19:00etan, Seber Altube plazatik aterata. Horrez gain, domekan, Besaiden omenaldia egingo dute, 12:00etan.

Aramaioko erreka garbitu dute zenbait puntutan

UBANE MADERA

Egunotan Aramaio erreka garbitzen ibili dira Udalak hala eskatuta. Bazterreko narrak kendu dituzte eta zabor pilaketa izaten duten lekuak garbitu dituzte. Oraingo astean bukatuko dituzte lan guztiak.

Donostiako Eulen SA enpresa ibili da Aramaio erreka garbitzen. Hain justu ere, kiroldegitik plazarainoko erreka zatia garbitu



U.M.

Zazpi langile ibili dira lanean; bataz beste, egunean sei poltsa zabor atera dituzte.

dute eta baita Saturraldeko errota inguruko zubia ere. Oro har, helburua da ura handitzen denean, zabor pilaketa sortzen den leku inguruak garbitzea, hala korik ez gertatzeko eta uholde arriskua saihesteko.

Lehenengo aldia da Aramaio erreka garbitzen dutela. Edoze-lan ere, Eulen enpresakoek adierazitakoaren arabera, nahiko egoera onean zegoen erreka. Jakinarazi digutenez, egunean sei poltsa zabor atera dituzte.

BOTEPRONTOAN/ Migel Anjel Luri · Gantzagako auzo alkatea

“Donostia oso hiri polita da, baina hemen bizi ostean, hura deserroso egiten zait; nahiago dut Gantzaga”

Azken urteotan zenbait biko-te gaztek Gantzaga auzoa aukeratu dute bizitzeko. Horri esker, auzoa biziberritu egin da. Hala kontatu digu auzoko alkate Migel Anjel Lurik:

Gantzagan bizi zara, baina ez zera hemengoa...

Ez, Donostian jaio nintzen eta hantxe bizi izan nintzen hari eta Arrasatera ikastera joan nintzanera arte, 19 urterekin. Harrezkero, hementxe nabil. Lehenengo Arrasaten bizi izan nintzen eta orain honaxe etorri naiz, zerura.

Aspaldi etorri zinen?

13 urte daramatzagu.

Lehenengo aldia da alkate zarela? Nekagarria izango da?


Lehen aldia da, bai. Nekagarria denik ez dut uste. Normalean auzo alkateak ez ditu zeregin handirik izaten. Noizean behin Udalarekin harremanak izan...

Hortaz datozen urteak lasaia izango direla uste duzu?

Bai. Hala dirudi, behintzat, orain arte ikusi dudaren arabera.

Zeintzuk dira gaur egun Gantzagan dituzuen behar nagusiak?

Sortzen diren arazo gehienak errepideekin lotutakoak izaten dira. Apurtxo bat urrutiti bizi



“Azken urteotan bost bikote berri etorri dira ume txikiekin (...) Etorkizun polita du auzoak”

gara eta asko erabiltzen ditugu errepideak; baina errepideak normalean Diputazioaren izaten dira eta ez dituzte behar bezala zaintzen. Errepideak asko apurtzen dira mendira egur bila doazen kamioien eraginez, neguko elurteekin eta elurra kentzeko makinekin... Halako leku batean bizitzeagatik faltan igartzen duzun gauzetako bat da. **Ura eta saneamendua, zelan?** Orain dela lauzpabost urte berri zuten; gasa ere badugu, auzo guztiarendako.

Argindarraren hariak-eta lurperatuta dituzue?

Gurako genuke, estetika kontuengatik. Gainera, hodi guztia sartuta dago lurpean, orain dirua behar da lanak egiteko eta Udalean esaten digutena da halakoetarako ez dagoela dirurik. Azken batean, Aramaio-ko Udala oso txikia da eta

Aramaiok auzo asko ditu, behar handiak, oso herri zabala da. Eta onartu beharra dago horrendako guztiarendako dirua lortzea oso zaila dela.

Zer moduz konpontzen zarete auzotarren artean?

Ondo. Dena dela, halako auzo txikietan beti egoten dira azpiko kontuak, baina orokorrean ondo konpontzen gara.

Ibarrarekin harreman handia duzue?

Nik uste dut Etxaguenen bizi garen gehienok harreman txikia dugula Ibarrarekin. Nagusienak gehiago jaisten dira, eta seme-alabak dituztenak ere bai, baina besteok... Ni, behintzat, gutxi ibiltzen naiz Ibarren.

Eguzkierripako alkateak komentatu zigun, oro har, Aramaion ezkongabe asko dagoela, Etxaguenen ere hala da?

Ezetz uste dut. Badago baserriren bat jende nagusiarekin, baina atzetik jende gaztea dator; gainera, azken urteotan hiru bikote gazte etorri dira ume txikiekin, eta orain beste bi. **Hortaz, etorkizun polita ikusten diozu auzoari?**

Bai. Guk etxea egin genuenean (91n), geu ginen gazteenak. Sasoi hartan auzo honek ez zuen oso etorkizun argirik, baina orain jende berria etorri da...

LABUR

Bi ikuskizun izango dira oraingo asteburuan: bata Anboton eta bestea kultura etxean

Gaur, barikua, Euskal Herrian bizi den Macrea irlandarrak bakarriketa komikoa egingo du Anboton tabernan, 22:30ean hasita. Berriz, bihar, *Iturrian zer dago?* antzezlanaren antzeztuko dute kultura etxean, 22:00etan. Besteak beste, Egaña eta Peñagarikano bertsoariak jardungo dute. Eta ikuskizunaren aurretik, Txirritolak antolatutako postal lehiaketako postalen erakusketa ipiniko dute.

Argindar mozketak egingo dituzte herrian datorren astean pare bat egunez

Herriko argindarraren transformazio zentroak zaintzeko lanak egin behar dituztela-eta, Electrotécnica de Urbina SA enpresak Udalarari jakinarazi dio datorren egunean eta barikuan (hilak 30ean eta urriaren lehen) argindar mozketak egingo dituztela herri osoan. Hain zuzen ere, egunean honako auzoetan izango dira mozketak: Gantzagan, Etxaguenen, Labeagan, Arexolan, Untzillan eta Suñan. Baita Ibarren ere (eskolan izan ezik), 09:00etatik 09:15era. Barikuan, berriz, Ibabe, Uribarri, Gureia, Altzaga, Azkoaga, Barajuen eta Arriola auzoetan moztuko dute argindarra. Argi mozketak hamar bat minutukoak izango dira.

Euskararen erabilera bultzatzeko ekimena abiarazi du Aramaio-ko Udala

Herriko euskararen erabilera bultzatzeko, etxeko etxe esku-orriak banatzen hasi da oraingo astean Udala. Azken urteotako datuen arabera, 2001etik 2003ra jaitsi egin da euskaraz berba egiten dutenen kopurua. Hain justu ere, Aramaion, 100 pertsonatik 85 euskaraz berba egiteko gai den arren, %61ek bakarrik egiten dute euskaraz. Gutxi egiten dutenak 25-64 bitarteko helduak dira.

ERRETRATUZAHARRA

San Agustin
eguneko
uholdeak

Oraingo honetan Maalako Errabalerá joango gara argazki zaharraren tartean. Hain justu ere, azkenaldian bota dituen euri zaparradek eragindako arazoak ikusita, egoki iruditu zaigu irudiotako argazkia argitaratzea. 1942koa da. Egun hartan uholdeak izan ziren Arrasaten. Halakoetan jeneralean izaten denez, uda zen, San Agustin eguna, abuztuaren 28a, hain zuzen ere. Argazkian ikusten duzue, uholde dezente handiak izan ziren urte hartan Arrasaten. Indar eta altuera handia hartu zuten urek, argazkian agertzen den hesia lekutik ateratzeko beste. Gure berriemaileek kontatu digutenez, Aramaio eta Deba ibaiak, biak atera ziren ubidetik. Otolara kalean (orduko Toribio Agirre kalea) metro eta metro eta erdi ingururaino iritsi ziren urak. Eta handik apurtxo bat aurrerago, Markiegi inguruan behe guztiak hartu zituen urak, Baltategiren behe-barruak... Hain zuzen ere, egun hura gogorarazteko, Zerrajera lantegian (4-2 Sekzioa



izeneko lekuan) marra bat margotu zuten ura noraino iritsi zen erakusteko. Esan digutenez, metro eta erdi pasatxo hartu zuten urek inguru hartan.

Gure argazkiak erakusten digu urak joan ondorengo Maalako Errabaleraren egoera. Dena hankaz gora utzi zuten urek. Herri osoa. Edozelan ere,

ez da gogoratzen hildakorik egon zenik. Bestalde, argazkian ikusten duzuen ezkerreko eraikina Sola jauregia zen, urte luzez abandonatuta egon zena. Gaur egun, Grupo San Juan dago haren lekuan. Eskumako eraikina, berriz, Karrikirri da, Resustatarrena zena. Luis eta Eugenio Resusta bizi ziren han. Gaur egun Maala Errabale-

ko 33. zenbakia izango litzateke. Eta bi eraikinen artean Aramaio erreka pasatzen zen; sasoi hartan lur azpitik barik kalearen ondotik pasatzen zen.

Argazkia: Maalako Errebala liburua.
Berriemailea: Maalako Errebala liburua, Juanito Leibar, E. Barandiaran eta J. M. Balantzategi.
Urtea: 1942.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Musakolan,
Sailuente
plaza

Arrasate, langileek eraikitako herria liburuan aurkitu dugu Arrasate nola handitu zen. Gero eta hiri-lur erabilgarri gehiago izateko planak egin zituzten industria herrietan. 1960-70eko hamarkadan, 25 plan partzial egin zituzten Deba eta Aramaio ibaien bailaretan barrena zeuden lur azalera handiak eremutan banatu eta, horrela, etxebizitzak eraikitzeko.



≈ 1960 Plan horiei esker, Arrasateko erdialdetik urrun auzoak sortu ziren, eta Musakola eta San Andres dira bi adibide.



2004 Argazki zaharra 1960. urte inguruan ateratakoa da, Musakolako Sailuente plazan. Valerio Martinezek atera zuen argazki hori.

**PUB
HAIZEA**



**Monte
taberna**

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Meson Manolo

Eguneko menua
Karta zerbitzua
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Arrazioak

Bañez Doktora 3. San Andres auzoan
Tel.: 943 79 22 40



PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asejim.com

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behe. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuarte, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behe
Tel.: 943 79 67 78 / Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

BITART

Larraitz Ugarte Maider Morras

Nafarroa etorbidea 23
Arrasate
Tel.: 943 71 25 22 / 943 71 25 23

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behe. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 620 12 48 43

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otolora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXE Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behe 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behe eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- BEGOÑA BARCINA Otolora lizentziaduna 29 635 70 88 88
- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22